

Telebista kontsumoa (1)

Irakurri albiste hau eta ondoren galderak erantzun. Erantzunak zenbakiak dira eta desordenaturik daude.

Hamabost minutu igo zen iaz telebistaren kontsumoa munduan

Eurodata TV Wordwidek ikerketa bat aurkeztu zuen atzo Cannesen. Ikerketa horrek esaten du telebista kontsumoa hamabost minutu handitu zela 2003. Urtean; pertsona bakoitzak hiru ordu eta 39 minutuz ikusten du telebista egunean. Ikerketa 72 herrialdetan egin dute, eta 2.500 milioi ikus-entzuleri galdetu diete. Japonian ikusten da telebista gehien, nahiz eta kontsumoa bi minutu jaitsi den 2003.urtean (pertsona bakoitzak lau ordu eta 29 minutu). AEBetan lau ordu eta 25 minutu ikusten dute, eta Europan hiru ordu eta 33 minutu.

Galdera hauek erantzun behar dituzu ematen dizkizugun erantzunekin.

1. Albistean zein urtetako datuak agertzen dira?

2. Pertsona bakoitzak zenbat denboraz ikusten du telebista egunean?

3. Zenbat herrialdetan egin dute ikerketa?

4. Zenbat ikus-entzuleri galdetu diete inkesta egiteko?

5. Pertsona bakoitzak zenbat denboraz ikusten du telebista Japonian?

6. Pertsona bakoitzak zenbat denboraz ikusten du telebista AEBetan?

7. Pertsona bakoitzak zenbat denboraz ikusten du telebista Europan?

Hauexek dira erantzunak. Kontuz *desordenatuta* daude.

- Hiru ordu eta hogeita hemeretzi minutuz.
- Lau ordu eta hogeita bederatzita minutuz.
- Hiru ordu eta hogeita hamahiru minutuz.
- Bi mila eta hiru urtekoak.
- Bi mila eta bostehun milioi ikus-entzulei.
- Lau ordu eta hogeita bost minutuz.
- Hirurogeita hamabi herrialdetan.

Telebista kontsumoa (2)

Gogoratzen al duzu lehen irakurri duzun testua? Hurrengo esaldietatik zein diren **gezurra** eta zein **egia**.

	Egia	Gezu...
AEBetan Europan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean		
Japonian Europan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean		
Japonian, 2002.urtean baino gutxiago ikusi da telebista.		
Europan AEBetan baino gehiago ikusi da telebista 2003.urtean		
2002.urtean 2003.urtean baino gehiago ikusi da telebista munduan		
AEBetan Japonian baino gehiago ikusi da telebista 2003. urtean		
Japonian AEBetan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean		
Europan Japonian baino gehiago ikusi da telebista 2003.urtean.		

Telebista kontsumoa (3)

Aurreko adierazpen batzuk gezurra ziren. Orain egia izateko aldatu beharko dituzu.

1. 2002. urtean 2003. urtean baino gehiago ikusi da telebista munduan.
2. Japonian, 2002. urtean 2003. urtean baino gutxiago ikusi da telebista.
3. Japonian AEBetan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean.
4. AEBetan Japonian baino gehiago ikusi da telebista 2003. urtean.
5. Japonian Europan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean.
6. Europan Japonian baino gehiago ikusi da telebista 2003. urtean.
7. AEBetan Europan baino gutxiago ikusi da telebista 2003. urtean.
8. Europan AEBetan baino gehiago ikusi da telebista 2003. urtean.

Erantzunak

Telebista kontsumoa (1)

1. Bi mila eta hiru urtekoak.
2. Hiru ordu eta hogeita hemeretzi minutuz.
3. Hirurogeita hamabi herrialdetan.
4. Bi mila eta bostehun milioi ikus-entzuleri.
5. Lau ordu eta hogeita bederatzi minutuz.
6. Lau ordu eta hogeita bost minutuz.
7. Hiru ordu eta hogeita hamahiru minutuz.

Telebista kontsumoa (2)

Gezurra / Gezurra / Gezurra / Egia / Gezurra / Gezurra / Gezurra / Gezurra

Telebista kontsumoa (3)

1. 2002. urtean 2003. urtean baino GUTXIAGO ikusi da telebista munduan.
2. Japonian, 2002. urtean 2003. urtean baino GEHIAGO ikusi da telebista.
3. Japonian AEBetan baino GEHIAGO ikusi da telebista 2003. urtean.
4. AEBetan Japonian baino GUTXIAGO ikusi da telebista 2003. urtean.
5. Japonian Europan baino GEHIAGO ikusi da telebista 2003. urtean.
6. Europan Japonian baino GUTXIAGO ikusi da telebista 2003. urtean.
7. AEBetan Europan baino GEHIAGO ikusi da telebista 2003.urtean.
8. Europan AEBetan baino GUTXIAGO ikusi da telebista 2003. urtean.